

KIROLA

**Herriko atletak,
hamazazpi domina
txapelketa
desberdinetan / 12**

txintxarri

**Zorionak Jon
eta Lander!
Kopako
txapeldunak!**



Sevillara joan izan balira bezala

Gipuzkoako gainerako udalerrien antzera,
Lasarte-Oriak gogotik ospatu du Realaren
gizonezkoen taldeak Kopa irabazi izana / 8-9

Txuri-urdin koloreak soinean eta bihotzetan, herritar ugari egin zuten topo hilaren 18an Lasarte-Orian eta giro ederra sortu zuten herrian barrena. TXINTXARRI

HEZKUNTZA

**Lasarte-Oriako udal
haur eskolako toki
falta dela-eta, guraso
talde bat konponbidea
eskatzen ari da / 2**



TXINTXARRI

GIZARTEA

**Zaintza lanetan ari
diren zainzaileak
zaintzeko programa
jarri du martxan
udalak / 4**

EUSKARA

**Euskal Jaia eta XI.
Euskararen Maratoia
ospatuko ditugu,
udazkenean,
Lasarte-Orian / 6**

EKONOMIA

**Beterri Saretuz sarea
ezagutzeko erreportaje
sorta, bigarren atala:
Hernaniko Talleres
Mitzelena enpresa / 7**

Eskaintza bereziak HOZKAILUETAN!



www.electricidadarregui.com

Zatoz ikustera!

Uda dator...
Prest duzu
hozkailua?

HAIER



TEKA



LIEBHERR





Euren seme-alabak Lasarte-Orian hezi nahi dituzte gurasoek eta 2026-2027 ikasturtea irailean hasiko dela kontuan izanda, haur eskolaren egoera "ahalik eta azkarren lantzea" eskatu dute. TXINTXARRI

HEZKUNTZA

Seme-alabak txikitatik herrian hezi nahi dituztelako, borrokan ari dira

Datorren ikasturtera begira tokirik gabe gera daitezke 121 umetatik erdiak baino gehiago Andre Joakina-Enea haur eskolan. Egiturazko konponbideak galdegin dituzte gurasoek

Iñigo Gonzalez Sarobe

"Kezkatuta" daude 2025ean eta 2026an jaio diren umeen gurasoak, ez dakitelako datorren ikasturtean Lasarte-Oriako udal haur eskolan matrikulatu ahalko dituzten euren seme-alabak ala ez. Eskuratu dituzten datuak eskuetan, ia bi heren kanpoan gera daitezke, 121 jaio zirelako iaz eta eskaera berriak egiten dituztenentzako 46 toki daudelako –gehienez 62 leku egongo lirarteke baina horietatik hamasei esleituta daude, kurtso honetan jadanik Andre Joakina-Enean daudelako–.

Egoera horren aurrean, arduradunen atea jo dituzte soluzio eske. Lasarte-Oriako Udaleko nahiz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariekin, esate baterako, martxoaren 30an bildu ziren. "Jakinarazi ziguten arazoa ongi ezagutzen dutela eta hainbat hilabete daramatzatela konponbideak bilatzen. Edonola ere, ikusi dugu gu mugitu garenean hasi direla beraiek ere, mahai gainean jarri zizkituten bi alternatibetako baten planoak bildu baino bi egun lehenago eginak zirelako", azal-

du dute Okendo plazan eginda-ko agerraldian.

Aipatutako plano horiek "aurreratuago" dagoen proposamenarenak dira, Garaikoetxea ikastetxeko atezainaren etxebizitza egokitzearenak. Neurri "eskasa" dela iruditzen zaie, hamar haurrek izango luketelako bertan egoteko tokia, eta, gainera, ez ditu betetzen Haurreskolen Partzuergoaren hitzarmeneko baldintza guztiak. "Gela bat egokitzeo espazioak bigarren gunek izan behar du: erabilera anitzekoa, kanpotik sarbide zuzenekoa, 75 metro karratuko patioa, komunak eta zuzendaritzako bulegoa. Azken hori da betetzen ez duena". Udaleko arduradunek martxo amaierako bileran gurasoei esan zieten, uste dute baldintza hori gabe lor dezaketela alternatiba hori onartzea Hezkuntza sailak, kontuan izanda Andre Joakina-Enea haur eskolan zuzendaritza bulegoa baduela, baina ez dute horren ziurtasunik.

Bigarren ildo, lehenengoarekin bateragarria dena, "oraindik landu gabe" dagoela zehaztu dute gurasoek: Andre Joakina-Eneako sukaldeak kentzea, espazio hori egokitzea eta gela berriak sortzea litzateke alternatiba. "Haur eskolakoek beraiek esanda, gunek hori iluna da eta gure seme-alabak hara eramateak ez digu graziaz egiten". Aukera hori hilaren 13tik aurrera lantzen hasteko konpromisoa hartu zuen udalak.

Bilera horren ostean, informazioa Lasarte-Oriako gurasoen taldearekin partekatu zuten eta hiru erabaki hartu zituzten: proposatutako neurriak nahikotzat ez jotzea eta bestelako aukerak bilatzen hastea, udalari proposatzeko; mozio bat aurkeztea atzoko (hilak 23) ohiko udalbatzarrean jorratu eta alderdi politikoei konponbideak bilatzeko lan egin dezaten; eta Haurreskolen Partzuergoarekin harremanetan jartzea ezarritako baldintzetan malgutasuna eskatzeko, egoera zein den kontuan izanda betiere. "Udalak posta elektronikoko helbide bat eman zigun eurekin komunikatzeko eta bide hori erabilita lau lokal proposamen aurkeztu genizkien gela berriak egokitzeo eta oraindik ez dugu mezu horren erantzunik jaso".

"Herrian hezi nahi ditugu"

Etsipen kutsua dute guraso taldeko kideen hitzek, hurrengo ikasturtea hasten denerako konponbide bideragarriak ez dutelako espero. "Haurreskolen Partzuergoekin harremanetan gaude eta esan digute udalak aurkeztutako proposamenak onartu egin behar dituela Hezkuntza sailak eta luzerako izan daitekeela tramite hori". Kontatu dutenez, gainera, arazoa ez da berria. "Gogoratzen naiz duela bost urte, pandemia garaian, 170 familia ginela eta arazo berdina izan genuen", oroitu du gurasoetako batek.

"Bost urte geroago ez dute ezertxo ere mugitu, haiengana joan garen arte".

Lasarte-Oriako haur eskolaren egoera zein den ikusita, inguruko udalerrietara jotzea beste aukerarik ez dute gurasoek. "Horrek, ordea, beste herrietako espazioak are gehiago tentsionatuko ditu. Gainera, kontziliazioa zailtzen du, umeen bila joateko edo edozer dela deitu ostean bertaratzeko urrutiago joan behar dugulako. Gure herrian hezi nahi ditugu gure seme-alabak".

Kontatu duten guztiaren berri emateko sinadura bilketa abiatu dute guraso taldeko kideek, baita haur eskolan tokia eskatu nahi duten haurren kopurua jakiteko ere. "Oraindik, 69 familiak sinatu dute sarean zintzilikatu dugun formularioa", azaldu dute. Guztien datuak jaso eta lasarteoriakogurasoak@gmail.com helbide elektronikoen bidez bidaliko dizkiote udalari.

Orain arte egindako bideari tinko jarraituko diotela adierazi dute, amaitzeko: "Borrokan jarraituko dugu, gugarik ez bada hurrengo belaunaldietako umeen gurasoengatik".

Garaikoetxeako atezainaren etxea egokitzea da alternatiba "aurreratuena"



Txartel hotel paretik abiatu eta Kale Nagusia zeharkatu zuten manifestariek, Okendo plazara iritsi aurretik. TXINTXARRI

GIZARTEA

"Soluziorik ezean", Oztarango eskola zaharretik inora ez doazela berretsi dute

Lasarte-Orian barrena manifestatu dira 50 bat pertsona, Okendora iritsi arte

Txintxarri

Txarteleko parkingetik abiatu zen hilaren 17ko agerraldia. *Desalojorik ez, soluziorik gabe ez goaz* lelopean, Okendoraino ailegatu ziren Oztarango eskola zaharren etxe kaleratzearen aurka manifestatutako 50 bat pertsona. Erdiguneko plazan zirelarik, testu bat leitu zuten, elebitan. Hitz horiek "duela aste batzuk asanbladan eginda eta bertako bizilagunekin sortutako testutik" abiatu ziren.

Jakinarazi zuten duela "ia urtebetetik" hainbat bizilagunen aterpe izan dela Oztarango eskola zaharra; Berritzegune izandako eta "egitura arazo teknikoak" zirela-eta, Lasarte-Oriako Udalak abandonatutako eraikina. Gaur egun, hogeit hamar pertsona inguru bizi dira bertan, eta euren bizimodua okertu egin omen da azken asteotan. Izan

ere, helarazitakoaren arabera, presentzia poliziala "areagotu" egin da. Hori ez ezik, jada, egunero joaten dira "argia kentzera eta gauean, etxetik kanporatzen eta identifikatzera". Urik gabe direla ere aitortu zuten.

"Madrasa ez da palazio bat"

"Paperik gabe eta baldintza txarretan mantentzen" dituztelarik, argitu zuten madrasa ez dela "palazio" bat, eta ez litzatekeela inor han bertan biziko beste aukerarik izango balute. Alabaina, gaineratu zuten "baldintza minimoak lortzeko aukera" dela, bestelako alternatibarik ez baitute. Hori dela-eta, plaza-ratu zuten ez direla inora joango, ez baitiete soluziorik eman agintariek, eta "konponbide bakarra" bertan geratzea dutela.

Emandako desalojo prozesua salatzen jarraitzen ari direla ere egin zuten.

Finean, bertako bizilagunen arabera, poliziak eman zien prozesu judizialaren berri; bai Ertzaintzak bai herriko udaltzaingoak. Ildo beretik, gehitu zuten desalojoaren agindua hilaren 15ean jaso zutela, hots, estatuko PSOEk gidatutako gobernuak migratzaileentzako ezohiko erregulazioa iragarri zuen egun berean. Etxerik gabe, erregularizatzeko prozesua "zaildu" egiten delarik, argi eta garbi azpimarratu nahi izan zuten "Oztarango eskola zaharreko bizilagunen erregularizatzeko prozesuak urratu" dituztela Eusko Jaurlaritzak eta Lasarte-Oriako Udalak. "Kapitalismoaren eta instituzioen utzikeriaren aurrean", adierazi zuten "autogestioa eta okupazioa" direla baldintza duinak lortzeko tresna "erreal" bakkak.



Oztarango eskola zaharren eraikin kanpoaldea. LASARTE-ORIAKO UDALA

Udalaren "prebentzio neurriak"

Udalak azaldu du 2002. urtean utzi ziola Oztarango eraikinak hezkuntza erabilera ikastetxe izateari, eta harrezkero Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntza sarean sartu zela; gauzak horrela, "bi hamarkada baino gehiagoz" Berritzegune gisa erabili dute. Duela urtebete baino gehixeago, aipatu administrazio horrek instalazioa uztea erabaki zuela azaldu du udalak, eta horren zergatia zein izan zen ere aritu du: "Egitura arazo teknikoak". Gaineratu du problema horiek "txosten espezializatuen bidez" egiaztatu zirela, eta "segurtasun arrazoiengatik instalazioa hustea" gomendatu zutela. Hala ere, gaur egun udalera itzultzeko administrazio prozesua ez da osatu.

Erabilerarik gabe geratu ondoren, aipatu eraikinak "bandalismo ekintzak" izan zituela eta horien ondorioz "larriki hondatu" zela gaineratu du: "Are gehiago larritu zuen egituraren ikuspegitik jada kaltetua zegoena". Hori horrela, udalak adierazi du azken hilabeteotan "bizpahiru pertsona" antzeman direla eraikin barruan "une jakin batzuetan eta modu ibiltarian". Azken egunetan, ordea, egoera hori "nabarmen areagotu" dela ere azaldu du: "Noizean behingo presentzia horretatik, 20-25 pertsona baino gehiagora igaro da bost egunetan". Esku hartu ahal izateko Eusko Jaurlaritzaren baimena eskatu eta, hori jaso ostean, eraikina husteko agindua eman du (alkate dekretu bidez). Erabaki hori jakinarazi diete eraikinaren barruan dauden pertsonei.

Hala, jarduketa horrek "segurtasun irizpideei soilik" erantzuten diela esan du udalak, "eraikinaren egiturazko arriskua eta osasungarritasun baldintzak" kontuan hartuta. Hilabeteotan "inguruko bizilagunekin harremana" izan duela ere adierazi du; haien "kezkei erantzun eta egoeraren bilakaeraren berri modu gardenean eman" diela. Azkenik, inplikaturako eragile guztiei "arduraz jokatzeko deia" egin die erakundeak, "egoera konplexu baten aurrean zorrotasunez eta zuhurtiaz jokatzeko".

Azkozteko Erronomia

2026ko maiatzak 10

Ba al dago plan hobetik igande goizerako?

- Buruntza mendiaren magaleraino mendi buelta egin
- Salda, txorizo egosia eta edariak indarrak berritzeko
- Naturaz inguratuta
- Paraje zoragarria
- Erronomia trikitilariekin
- Harrijasotzaile eta aizkolariak

MAITE

ESTETIKA ARETOA

ZORIONAK AMATXO!

Amaren egunerako opari txartela prestatuko dizugu

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943-37 08 45



Asteon eman dute programaren berri Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan. LASARTE-ORIAKO UDALA

GIZARTEA

Zaintza langileei laguntza integrala emateko zerbitzua jarri du martxan udalak

'Zaintzaileen zaintza' proiektuaren berri eman du, berriki, erakundeak

Txintxarri

Maitelan Kooperatiba Elkartea gizarte ekimeneko kooperatiba integrala da; zainketen lana profesionalizatzen eta duintzeko lanetan ari da. Lasarte-Oriako Udalaren babesarekin, Beterri-Buruntzako Mankomunitatearen bitartez, eta sektoreko langileen lan baldintzak eta enplegarritasuna hobetzera bideratutako proiektu bat garatuko du udalerrian.

Hala jakinarazi dute, berriki, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedo Beldarrainek eta Sozioekonomia-ko saileko buru Nuria Fernandez Castrillok. Horiekin batera izan dira Maitelan Kooperatiba Elkarteko bi ordezkari ere: Elisa Peredo Quiroz eta Soledad Granada Casañeda.

Zerbitzuak, xehe-xehe

Agerraldian, Maitelaneko ordezkariak aipatu proiektuaren bidez udalerriko zainketetako langileei eskainiko zaizkien zerbitzuak zeintzuk diren azaldu dute. Bizilekuan edo lantokian dauden baliabideei

Enplegarritasuna eta lan aholkularitza sustatzeko duen balioa azpimarratu dute

buruzko informazioa jasoko dute, eskubideak eskuratzea errazteko. Horrekin batera, zaintzaile profesionalen sare batean sartuko direla ere argitu dute, horrela, gizarte loturak eta elkarrekiko laguntza indartzeko. Prestakuntza eta ikastaro soziosanitariorako sarbidea erraztuko zaie, eta enpleguaren arloko administrazio erregularizazioari buruzko orientazioa eskuratuko dute. Hala, irregularitasunak eta lan gehiegikeriak salatze-ko laguntza eskainiko diete. Zainketetako profesionalen lan errealitatea ikusaraztea ere ahalbidetuko du.

Laguntza hori bideratzeko, Maitelanek zuzeneko arretako telefono zenbakia jarri du interesdunen eskura: 633 17 73 21. Astelehenetik ostiralera

dei daiteke zenbaki horretara, 14:00etatik 18:00etara.

Udalaren "konpromisoa"

Zaintza langileen eskubideak bermatzeko aipatu ekimenaren garrantzia nabarmendu du Gizarte Zerbitzuetako, zinegotzi Lourdes Acevedok; hala, gogorarazi du historikoki "ikussezina" izan den kolektiboa dela. Fernandezek, berri, proiektuaren enplegarritasuna eta lan aholkularitza sustatzeko ekimenak duen balioari egin dio azpimarra. Biek ala biek adierazi dute Udalak Beterri-Buruntza Mankomunitatearekin eta Maitelan bezalako erakundeekin duen lankidetzatza "funtsezkoa" dela "udalerriko familia askoren ongizateari eusten dion sektorearen beharrei erantzun zehatzak emateko".

Proiektu hori, gainera, Maitelanen estrategia zabalago baten barruan kokatzen da, sektoreko erakunde, elkarte eta enprekin aliantzak erakitze-ko, zaintza langileen arreta eta aitortza hobetuko duen eskualdeko lankidetzatza sarea sortzeko.



Gipuzkoako Jasangarritasun diputatu Jose Ignacio Asensio. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

GIZARTEA

Klima aldaketari aurre egiteko aurreneko foroa egin dute

Erronka horri tokiko erakunde eta eremuetatik heltzea garrantzitsua dela azpimarratu dute BateraLabs ekimenean

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak Naturklima Klima Aldaketa Fundazioarekin, udalekin eta eskualdeko garapen agentziekin lankidetzan BateraLabs foroa jarri du martxan. Buruntzaldean ekin dio ibilbidea proiektuak eta Antonio Mercero gunean bildu ziren hilaren 17an. Prozesuan lantzen den proiektu zehatz bat gure lurraldean garatzeko konpromisoa hartu du Aldundiak.

Jose Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatu eta Naturklimako presidentek eta Agustin Valdivia Lasarte-Oriako alkateak parte hartu zuten jardueran eta ekimenaren nondik norakoak azaldu zituzten. Besteak beste, tokiko eremuetatik klima aldaketari aurre egitea garrantzitsua dela nabarmendu zuten.

Aldundiak etorkizunari aurre hartzeko eskualde bakoitzaren errealitateara egokitutako erantzunak diseinatzea, lurraldearen erresilientzia eta herritarren bizi kalitatea indartzea garrantzitsua dela deritzo eta horretarako BateraLabs foroa jarri du martxan. Horren bitartez, herritarrek euren ideiak eman eta landu ahalko dituzte saio ezberdinetan.

"BateraLabs ez da ekintza puntual bat, prozesu jarraitua baizik. Klima ekintza bultzatzeko beste modu bat: parte hartzeko guneak irekitzea, diagnostikoa partekatzea eta tokikotik jardutea trantsizio

ekologiko bidezkoagoa, demokratikoagoa eta eraginkorragoa erakitze-ko", nabarmendu zuten.

Lanketa prozesua

Lehenik, Buruntzaldeko klima diagnosi espezifikoak azaldu zuten. Horren arabera, hurrengo hamarkadeten klima fenomenoaren maiztasuna eta intentsitatea handituko da. Eta hiri eremuan zein lehen sektorean aldaketa horrek izan ditzakeen eraginak ere jakinarazi zituzten.

Bigarren fasea aurrera eramango dute hurrengo hilabeteetan. Horretan eztabaida kolektiboa eta proposamen zehatzen definizioa landuko dituzte, gure lurraldean identifikatutako arazoei aurre egiteko "neurri bideragarriak" diseinatzeko.

Era berean, partaidetza prozesutik sortzen diren lehenetsunetatik abiatuta, Buruntzaldean proiektu zehatz bat bultzatzeko konpromisoa hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak. Ekimen horiek ekintza klimatikoaren herritarren txostenaren parte izango dira, "herritarren proposamenak benetako jarduerara bihurtzeko helburuarekin".

Klima ekintza bultzatzeko parte hartzeko guneak irekitzea da BateraLabs-en muina

KULTURA

Europako eta Hegoamerikako doinuetan barrena bidaiatu dute, kultur etxean

Ederki aritu dira Loeffler, Mosquera eta Leioako Kontserbatorioko zazpi ikasle

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Zero Sette taldeak Nazioarteko 23. Akordeoi Jaialdiaren aurreneko zatia ospatu zuen hilaren 18an Manuel Lekuona Kultur Etxean. Marcel Loeffler akordeoi jokatzailerak eta Rodrigo Mosquera gitarra jotzailerak gonbidatu zituzten, baita Leioako Kontserbatorioko hainbat ikasle ere.

Ekudorretik eta Frantziatik ekarri zituen Zero Sette aurtengo doinuak, Marcel Loeffler eta Rodrigo Mosquera musikarrien eskutik. Ohi bezala, Ainhoa Aiartzak aurkeztu zuen 23. Nazioarteko Akordeoi Jaialdia. Emanaldiarekin hasteko, hainbat pieza jo zituzten Leioako Kontserbatorioko zazpi interprete gazteek: Uxue Rama Mulero, Nahikari Campos Marcos, Juana Klassen Allende, Lide Ugalde Perez, Nerea Tena Marquez, Iria Blanco Marina eta Sebastian Gomez Sanguinetti. Akordeoia, gitarra klasikoa eta zeharkako flauta. Instrumentu horiez baliaturik, kanta ederrak jo zituzten, binaka zein taldeka.

Aurreneko jaialdia, 2004an

2004ko ekainaren 26an aurrera eramane zuten aurreneko jaialdia Zero Setteko kideek, urte horretako San Pedro Jaie egitarauaren barruan. Lau talde etorri ziren kultur etxera: G. Rossini orkestra italiarra, Oker folk taldea, jazz eta folka uztartzen zituen UHNE eta Zero Sette bera. Bi hamarkada igaro badira ere, helburu nagusiak ez dituzte aldatu



Leioako Kontserbatorioko ikasleek ekin zioten emanaldiari. TXINTXARRI



Mosquera eta Loeffler ederki moldatu ziren elkarrekin. TXINTXARRI

Zero Settekoek: batetik, akordeoia ezagutarazi nahi dute, instrumentu horren doinuak entzutean "harritu" egiten direlako ikus-entzule asko; eta, bestetik, "nazioartetik datozen punta-puntako interpreteen topaleku" izatea.

Formatuari buelta bat eman eta ospakizuna bi zatitan egitea erabaki dute Zero Settekoek. Aurtengo bigarrena azaroan aurrera eramango dute; emanaldiaren data zehazteke dago oraindik.

horietako zenbait) parean zituenek behin eta berriro erabili duten hitza. 2024ko ekainetik Eusko Jaurlaritzako lehendakaria den Imanol Pradales egiten dio erreferentzia eta ikerketa kazetariak honela definitu du zer esan nahi duen: "Gustukoentzuten kideak, ez adituenak edo militante onenak, baizik eta bere kuttunenak, berarekin batera igo eta gobernuan sartu dira". Makina bat liburu plazaratu ditu bilbotarrak eta oraingo honetan askorentzat ezezaguna zen pertsona ardura postu ho-

EAJren barruan dagoen belau-naldi aldaketa eta botere banaketaren aldaketa landu du Txalaparta argitaletxearekin kale-ratu duen lanean.

Pradalismoa ez da Zelaietak asmatutako termino bat, baizik eta Antonio Mercero aretoan aurkeztu duen liburua prestatzeko egin dituen elkarrizketetan (EAJko militante beteranoekin

POLITIKA

'El Pradalismo' liburua aurkeztu du Ahoztar Zelaieta ikerketa kazetariak

Txintxarri

Ahoztar Zelaieta Zamakona ikerketa kazetaria hirugarrenez etorri da Lasarte-Oriara. Oraingo honetan *El Pradalismo. El ocaso de los JoBuBi* liburua aurkeztu du Antonio Mercero aretoan. Imanol Pradalesek, gaur egungo Eusko Jaurlaritzako lehendakaria denak, Iñigo Urkulluren erreleboa hartzeak

NEURE KABUZ

Eguzki izpiak



OIHANE PUERTAS RAMIREZ
KOLABORATZAILEA

Nahiko nuke zerbait inportantea idatzi, edo transzendentala, agian. Zerbait guaia ere bai. Baina hau idazten hasi naizenerako, eguzkia atera da, eta hedabideetako kirol agendan futbolak nola, eguraldiak –edo eguzkiak– eklipsatu du nire burua.

Ordenagailu aurrean jarri aurretik ideiak pasatzen ziren nire burutik, baina, orain, galdera hauek besterik ez ditut: ze plan egin dezaket eguraldia aprobetxatzeko? Galtza motzak eta sandaliak janzteko garaia da edo gehiegitxo da oraindik? Noiz arte iraungo du eguraldi honek?

Eta konturatu orduko, hemen nago, zerbaiti bueltaka bai, baina ez uste nuenari. Nolabait, beste zerbait izan behar zuen testu hau eguraldiaren inguruko gogoeta bihurtzen ari da. Hutsala, e? Ba agian ez: konturatu zarete nola aldatu dezakeen dena eguraldiak? Paisaia bera ez da berdina: koloreak koloreago egiten dira; argiak beste modu batean jotzen du, eta kaleak jendez betetzen dira. Herria herriago bihurtzen da, biziago. Umorea bera ere aldatzen zaigula esan genezake.

Eta kurioa da: ezin dugu eguraldia kontrolatu, baina gure egunak haren arabera antolatzen ditugu. Aplikazioak begiratzen ditugu, aurreikuspenak aztertzen, planak egiten, ordutegiak moldatzen... Hori guztia egiten dugu jakinda, sakonean, edozein momentutan aldatu daitekeela dena. Kontrolpean daukagula dirudi, baina ez da hala.

Ez al da hori bera gertatzen beste gauza askorekin ere? Askotan sinesten dugu dena lotuta, pentsatuta edo erabakita daukagula, baina gero eguzki izpi batek –edo euri zaparrada batek– desbideratu egiten gaitu. Gaurko zutabearen beste zerbait idatzi nahi nuen, baina eguzki izpiek distraitu naute. Hain erraz, hain simple.

Gizartean ere antzeko zerbait gertatzen dela iruditzen zait. Batzuetan, gauza arinek kentzen digute arreta garrantzitsutzat dugun horretatik. Eta ez dakit hori beti txarra den –bai, batzuetan bai, segun eta nork zer noiz nola zergatik eta zertarako egiten duen–. Baina eguzki izpiekin gure arreta beste norabait bideratzea eskertzen da batzuetan. Beste norbaitera begiratzea. Beste zerbait pentsatzea.

Azkenean, ez dakit eguraldiak aldatzen duen mundua, edo guk geuk aldatzen dugun ingurua eguraldiaren arabera. Konturatu gabe, kontrolatu ezin dezakegun zerbaiten inguruan antolatzen dugu dena. Eta, oraingoan, ez naiz eguraldiaz (bakarrik) ari.

Hor egon daiteke, agian, oreka: tarteka, nahi gabe bada ere, eguzki izpiei bidea egitean. Bilatu gabe, gauza txikietan ere plazera aurkitzean. Agian, azkenean, hau guztia ez da hain hutsala. Edo bai. Baina eguzki izpiek distraitu naute jada.



Zelaieta, azalpenak ematen. TXINTXARRI

rretara iristeak jeltzaleen barruan mugitu duena ikertu du.

"Bizkaian ezagunagoa izanda ere, profil baxuko pertsona zen Imanol Pradales eta hori zen abantailak bat", adierazi du liburuaren egileak. Hori horrela izanik ere, bazuen "handicap" esanguratsu bat: "Bizitza osoa zeramala EAJren aparatuaren aginduetara; berarengan 90. hamarkadan jarri zituzten euren begiak agintariek eta orduan hasi ziren monitorizatzen".

Aurkezpenera joandakoek galderak egin zizkieten egileari gero.

EUSKARA

Euskararen urtaroa izango da udazkena, Lasarte-Orian

Irailean Euskal Jaia ospatuko da; urrian, berriz, XI. Euskararen Maratoia

Txintxarri

"Koloretsua" izango da aurtengo udazkena Lasarte-Orian; hala adierazi du Agustin Valdivia alkateak. Asteon iragarri dituzte urte sasoi horretan aurrera eramango diren eta "euskara ardatz eta oinarri" izango dituen bi ekitaldi: XI. Euskararen Maratoia eta Euskal Jaia. Valdiviak berak, Euskara batzordeko zinegotzi Estitxu Alkorta, Kultura saileko arduradun Ainara Elicecheak eta Ttakun Kultur Elkarteko ordezkari Mikel Izquierdok eman dute horren berri. Xehetasunak aurrerago jakinaraziko dituzten arren, aipatu bi egitasmo horiek noiz ospatuko diren argitu dute.

Alkortak azaldu du urriaren 17an eta 18an izango dela Euskararen Maratoiaren hamaikagarren edizioa. Hala, gogora ekarri du azken aldia 2020an egin behar zela, baina Koronabirusak eragindako osasun larrialdia medio, 2022an ospatu zela. Hala, nabarmendu du "ilusioarekin" ari direla ekimen horren antolaketa lanetan, dagoeneko herri eragileekin elkarlanean. Primizia gisa esan du "berrikuntza batzuk" izango dituela aurtengoak, nahiz eta oinarrian, tradiziozko egitu-



Okendo plazan eman duteekimene berri antolatzaileek. TXINTXARRI

rari eutsiko dion; zortzikotea izango du, baita musika eta dantzarako tartea ere.

Hitzartze horien ostean hartu du hitza Ainara Elicecheak; tarte hori baliatu du Euskal Jaia aurkezteko. Iragarri du irailaren 26an egingo dutela, eta, gaineratu, ospakizun hori "hazten eta herriko jai egutegian finkatzen jarraitzeko bokazioarekin" sortu dela. Iazko edizioako formatu berriak izandako "arrakastaren" ondoren, udalak herriko eragileekin elkarlanean jarraituko du, bereziki Ttakun Kultur Elkartearekin,

"jaiaren izaera parte hartzailea eta komunitarioa indartzeko".

Ttakuneko ordezkari Mikel Izquierdok adierazi du orain arte egindakoaren berri emateko lehen bileran egin dutela dagoeneko. Bi ekimenak aurkeztu dituzte, eta horietan parte hartu edo ekarpenik egin nahi dutenak bertaratu dira. Eta aurrerantzean ere gehiago izango direnez, egitasmo horien arrakasta bermatzeko "erakundeen eta eragile sozialen arteko elkarlanaren garrantzia" azpimarratu dute hizlari guztiek.

lan horretan, gainera, Porrotx pailazoaren konpainian ariko dira; kantu eta dantza egingo dute surdgorriarekin.

Arratsaldean, berriz, 17:30ean, Ndank Ndank elkartearen eskutik *Zer dakizu Afrikari buruz?* sentsibilizazio saioan parte hartuko dute Ttakun Kultur Elkarteko Gazteklubeko LH 3ko gaztetxoek, Mercero gunean. Ostean (18:30ean), Okendo plazan, egitasmo horretako 4-5-6 mailakoek koreografiak dantzatzeko dituzte. Zehazki hiru izango direla azaldu dute antolatzaileek: Ndank Ndank elkartearen Elkarrri, Bizipozaren Bizipoza auzolan, eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Eskuetan.

Musika eta dantza erakustaldia

Jaiari jarraipena emateko, 19:00etan musika jaialdia aurrera eramango dute. Bertan izango dira Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria

KULTURA

Dortokek sinbolizatzen duten belaunaldi arteko transmisioaz

Isabel Alba Rico idazle donostiarrak 'Tortugas' lana aurkeztu du kultur etxeako hitzaldi aretoan. Gustura aritu da bertan

Txintxarri

Solasaldi literarioez gozaten du Isabel Alba Rico idazleak eta nabaritu zen hori kultur etxeako hitzaldi aretoan, hilaren 22an, gunea lepo bete zuten herritarren aurrean. *Tortugas* liburua aurkeztu zuen, amek alabei egiten dieten transmisioan (memoria, balioak...) oinarritutako lana eta hiru belaunalditako emakumeak protagonista dituen: Estrella, amona; Blanca, alaba; eta Sofia, biloba. Gazteena da protagonista nagusia eta bere egunerokoan gertatzen zaiona jasotzeko grabatzen dituen ahots artxiboetan oinarritutako kapituluetan baturatu du egileak kontakizuna.

Esan bezala, hiru belaunalditako emakumeen arteko harremana da *Tortugas* lanaren ardatza, eta, kontakizuna "sinesgarria" egite aldera, "asko" dokumentatu dela kontatu du, pertsonaien azalean jarri eta bakoitzaren adierazteko eta hitz egiteko modua prestatzeko. Hori horrela izanik, liburuaren muina hauxe da: memoria, baloreak eta bestelakoak nola transmititzen dizkien amek alabei. Horrez gain, gaurkotasan askoko beste kontu batzuk jorratu ditu: klima



Aurkezpeneko une bat. UDAL LIBURUTEGIA

aldaketa eta fenomeno horren ukazioa, zientzia, dolua, eskola jazarpena... Institutuetan irakurri eta lantzeko oso lan "aproposita" dela azaldu zuen.

Liburuaren izenburua ez du ausaz aukeratu idazleak. Dortoka "animalia oso sinbolikoa" dela adierazi du: "Kultura askotan islatzen ditu iraunkortasuna, jakinduria, pazientzia eta babesa". Mantso mugitzen da baina etenik gabe, eta horregatik, egonkortasuna, jarraikitutasuna eta lurrarekiko konexioa ere irudikatzen ditu.

KULTURA

Milakultura jaia ospatuko dute maiatz hasieran

Txintxarri

Lasarte-Oria osatzen duten herritarren arteko sarea, komunitatea hedatzen eta zaintzen jarraitzeko asmoa du Lasarte-Oriako Bizipoza taldeak. Hori horrela, eta kulturartekotasuna ardatz hartuta, jarraipena emango diote iaz lehen aldiz egin zuten Milakultura egunari. Aurtengo egitaraua, ordea, ez da egun bakarrera mugatuko; bi egunetarako deitu dituzte ekimenak: maiatzak 7 eta 8rako.

Kulturartekotasunetik, haratago: eguneroko arrazakeria estereotipoak eta begirada antirrazista mahai ingurua izango da maiatzaren 7ko lehen hitzordua, ostegunarekin. 18:30ean aurrera eramango dute, Oriarte BHIIn eta Ndank Ndank

elkarteko kideak izango dira hizlariak. Bizipoza taldeko lagunek azaldu dute helduei zuzendutako hitzordua dela, hau da, ikastetxeetako guraso, herritar, eta bertaratu nahi duen ororentzat.

Ostiralerako, aldiz, goizetik iluntzera arteko egitaraua prestatu dute. Egunari hasiera emateko (10:00etan), Landaberri-Garaikoe txea eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako zein Oriarte institutuko ikasleek muralak sortuko dituzte. Kulturartekotasuna oinarri hartuta, leloak pentsatu, sortu, horiek idatzi eta atonduko dituzte. Horiek guztiak, gero, herriko komertzio eta kaleetan erakusgai jarriko dituztela jakinarazi dute Bizipoza taldeko lagunek. Sormen

eragileko kideak, baita Nikaraguako eta Senegaleko ordezkariak eta Semblante Andaluz elkarteak ere. Horiek guztiek, euren dantzak eta musikak erakutsiko dizkiete bertaraten direnei. Sahararek, Zaghareet (irrintzi sahararra) erakustaldia ere egingo dute. Horien guztien artean izango dira ere Txalagoreko txalapartariak, Earra bertso eskolako bertsolariak, Xumela koruko kideak eta LOZE-Tekoak.

Pasa den ikasturtekoarekin alderatuta, bada berrikuntzarik aurrean; parte hartzaile guztien arteko afari-merienda egingo dute. Aipatu musika jaialdiaren ostean izango da, eta hitzordu hori baliatu nahi dute partaideak elkar ezagutu eta horien arteko harremanak sustatzeko. Jarduera hori, beraz, parte hartzaileentzat soilik izango da eta Ttakunenean egingo dute.



Sara Etxeberriaren afixa. BIZIPOZA

Herritarrek antolatu duten jaiaren parte har dezaten nahi dute Bizipoza taldeko lagunek, lasarteoriatar oro bertaratzera gonbidatu dute. Informazio osoa, www.txintxarri.eus web atarian dago irakurgai.



EKONOMIA

"Krisi uneak aukerak ere badira, eraldatzeko"

TALLERES MITXELENA TAMAINA HANDIKO PIEZAK MEKANIZATZEN ESPEZIALISTAK

Beterri Saretuz-eko kide den Talleres Mitxelenak elkarlanaz, Ekonomia Sozial Eraldatzaileaz eta eskualdean sustraitutako jardunaz hitz egin du

Txintxarri ESKUALDEA**Beterri Saretuz sarearen baitan kokatzen zarete. Zer da Beterri Saretuz eta zer helbururekin sortu zen?**

Beterri Saretuz eskualdeko enpresa, kooperatiba eta eragile ezberdinek osatutako elkarlan sarea da. Helburua da tokiko garapen ekonomiko eta soziala ikuspegi eraldatzaile batetik sustatzea, Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarri hartuta. Hau da, jarduera ekonomiko pertsonen eta komunitatearen zerbitzura jartzea, eta elkarlanean oinarritutako lurralde eredu bat indartzea.

Zeintzuk balio partekatzen dituzue sarean?

Elkarlana, konpromiso soziala, erabakiak modu parte hartzailean hartzea, lan duina sustatzea eta lurraldearekiko lotura estua dira ardatzetako batzuk. Sarean gauden eragileok sektore eta tamaina desberdinetakoak gara, baina badugu ikuspegi komun bat: ekonomia tresna bat dela gizartea eraldatzeko.

Zer ekarpen egiten dio sareak eskualdeari?

Batetik, tokiko jarduera ekonomiko indartzen du, bertako enpresen arteko harremanak eta sinergiak sustatuz. Bestetik, bestelako eredu ekonomiko bat existitzen dela eta martxan dagoela ikusarazten du. Gainera, proiektu bateratuak sortzeko eta ezagutza partekatzeko espazioa eskaintzen du.

Zein da Talleres Mitxelenaren jarduna eta zer egiten duzue egunerokoa?

1957. urtean sortu zuten eta gaur egunera arteko ibilbidean aipatzekoa da krisi ekonomikoaren garaietan langileek nola egin zieten aurre egoera zail horiei. Zuzendaritzak euren esku utzi zuten ardura eta jakin zuten buelta ematen, 2000n kooperatiba sortu arte, gisa horretako proiektu batekin dakartzan balio guztiekin.

Egunerokoa pieza handien mekanizazioaz arduratzen gara, espezialistak gara horretan: 14-17 metrotako ardatzak; diametro handiagoa duten piezak ere bai, 40 tonara artekoak; eta fresado-



Kooperatiba gisa 25 urte bete zituztela ospatu zuten Talleres Mitxelenako langileek eta sortzaileek iaz. TALLERES MITXELENA

reetan 50 tonara artekoak egiten ditugu. Fabrikatzen ditugun pieza horiek bakar eta bereziak dira, bezero bakoitzaren neurri-egindakoak. Artisauak ere badira gure langileak, egiten ari denari balio erantsia ematen dio bakoitzak. Sektore askotarako egiten dugu lan: ontzigin-tza, siderurgia, papera, eta abar. Hemen inguruko bezeroentzat aritzen gara batez ere eta Frantzia ere badugu lan bolumen nabarmena; gure fakturazioaren % 35.

Nola islatzen dira Ekonomia Sozial Eraldatzailearen balioak zuen eguneroko praktikan?

Garrantzi handia ematen diogu interkooperazioari eta hori sustatzen duten proiektuei. Urteak daramatzagu Beterri Saretuz eragilearen parte izaten, bagaude baita ere Hernani Burujabe proiektuan edota Enherkom komunitatean.

Sinesten dugu ekonomia sozial eraldatzailearen balioetan eta barne araudian txertatuta ditugu. Pertsonak lehen lerroan jartzean eta ekonomia euren mesedetara izatean sinesten dugu. Lan egiterakoan, adibidez, enpatizatzen dugu alor ugaritan

premiak dituzten kolektiboekin eta beraiekin lankidetzan egin dezakeguna aztertu eta gauzatu dugu. Ez da soilik diskurtso bat; gure antolaketan eta lan egiteko moduan txertatuta dago eta ahal dugun ongien aplikatzen saiatzen gara, baina egia da gurea bezalako enpresa industrial batentzat erronka handia dela. Eguneroko praktikara eramatea kosta egiten zaigu eta argi utzi nahi dugu ez garela ezereen eredu.

Zergatik erabaki zenuten Beterri Saretuz sarean parte hartzea?

Lehen aipatu ditugun balioen artean interkooperazioa dagoelako, inolako zalantzarik gabe. Ekonomia sozial eraldatzailearen balioekin bat egiten dugu eta hori posible dela erakusteko saretu eta elkartu egin behar dugu; bakarrik, hori dena gauzatzeko ez da posible.

Zer ematen dizue egitasmoan sareak? Eta zer ematen diozue zuek sareari?

Saretzeak ematen digu babesa, motibazioa eta gure zentzuari jarduna, ikusten dugulako posible dela beste era bateko ekonomia aurrera eramatea eta tokian-tokian inpaktua eragitea.

Industriarena mundu hotza da eta aipatutako balioak egunerokoa txertatzea zaila den arren, horrelako egitasmoek ilusioa ematen digute.

Sareari parte hartzea, elkarlana eta ahalegina ematen dizkiogu; esan dugu ez garela ezereen eredu baina proiektuan inplikaturik gaude. Hori esanda, Beterri Saretuzengandik gehiago jasotzen dugu ematen duguna baino.

Etorikizunari begira, zein erronka eta aukera ikusten dituzue eskualde mailan?

"Balioak ahalik eta ongien aplikatzen saiatzen gara baina erronka handia da enpresarentzat"

"Ekonomia egon dadila pertsonen eta gizartearen beharren zerbitzura, eta ez alderantziz"

Sare gisa indartzea, ezagutzera ematea eta itzultzea ekonomia sozial eraldatzailearen oinarri: egon dadila ekonomia pertsonaren eta gizartearen mesedetara; egiteko modu hori guztiontzako oso osasungarria dela iruditzen zaigu. Inoiz baino nabarmenagoa da behar hori, tokiko ekonomia egokitzea gizartearen beharrezanetara, ez alderantziz. Sistemaren logika eroak ez du etorkizunik. Egungoa bezalako krisi momentuak aukerak dira gauzak aldatzeko.

Bestalde, erronka nagusietako bat euskararen erabilera sustatzea da enpresa eta eragileetan. Eta gehiago aipatzearen: lehiakortasuna, belaunaldi erreleboa, digitalizazioa, trantsizio ekologikoa... Baina aukera handia ere badago tokiko ekonomia indartzeko, gazteei bestelako ereduak eskaintzeko eta komunitate sendoago bat eraikitzeko. Horretan guztian funtsezko rola izan dezake Beterri Saretuz sareak.

Beterri Saretuz-ek eskualdean Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarri duten eragileak ikusarazten jarraituko du datozen hilabeteetan, hedabide lokalen bidez eta elkarrizketa sorta honen bitartez. Helburua argia da: erakustea bertan badagoela bestelako ekonomia eredu bat, eta komunitatearekin lotura estuan diharduten proiektuak ezagutaraztea.



BETERRI SARETUZ-EN WEBGUNEAN, HEMEN



Adin guztietako herritarrek Okendoko karpa bete zuten Errege Kopa ikusteko. TXINTXARRI

Giro ezin hobean, Errege Kopako finala bizi eta ospatu du Lasarte-Oriak

Goizetik gauerdira arte, txuri-urdinez jantzi da Lasarte-Oria. Haurrentzako puzgarriek, txu-txu trenak eta Oaintxe in deu! txarangak ederki girotu dute Errege Kopako finaleko atarikoak. Lepo betetako karpan, herritarrek urduritasunez jarraitu dute lehia

Txintxarri

Sevillako La Cartuja estadioan (Andaluzia) jokatu zen Errege Kopa. Milaka zaletu izan ziren bertan, baina Andaluziako hiriburura joan ez ziren Gipuzkoa osoko zaletuek euren indarra eta animoak bidali zizkieten Realeko jokalariei. Lasarte-Oria izan zen gune horietako bat.

Goiz-goizetik nabaritu zen finalarekiko ilusioa, Lasarte-Oriako kaleetan. Egun berezia izan zen, eta herriko zaleek, elastikoa eta bufandak jantzita, gogotik ospatzeko beta aprobetxatu zuten. Lasarteoriatarrek ez ezik, inguruko herrietako jendea ere gerturatu omen zen, herriko txokoak txuri-urdinez eta alaitasunez betetzera.

Goizean zein arratsaldean, ondo pasatzeko hamaika aukera izan zituzten zaleek. Etxeko txikientzako puzgarriak ipini

ziren, Loidibarrenen. Hasiera batean, Mercero gunean ipini behar ziren arren, euria iragarritza zenez, frontoira pasa zuten gazteentzako zona. Saltoka aritu ziren ehunka haur, eta euren bizipozarekin kontagiatuta, senideak ere ederki izan ziren. Futbolinean eta penaltiak jaurtitzen ere ibili ziren, besteak beste.

Frontoitik at, txu-txu trenak Lasarte-Oriako kaleak zeharkatu zituen Okendo plazatik aterata. Harrera beroa izan zuen atrakzio honek jende mordoak paseatu baitzen, bertan.

Hitzordu garrantzitsurako gutxi falta zenean, kalejira egin zuten afizionatuek Oaintxe in deu! txarangarekin batera. Giroa ederra izan zen, eta kantuan zein dantzan igaro zituzten erdiguneko kaleak. Musikariak ere pozarren ziren.

Finala hastear zela, karpa ireki zuten, eta berehala bete ziren 160 eserlekuak. Dena den, pantaila handia edozein txokoetatik ikusteko aukera zenez, beste hainbestek zutik ikusi zuen partida. Balkoitik ere ikusi zuten finala herritar batzuk.

Realaren golek dantzan jarri zituzten zaletuak eta berdinketen golek giroa apaldu zuten arren, txuri-urdinen aldeko animoak ez ziren ixildu arauzko denbora amaitzera arte.

Ez zen inor mugitu bere lekutik eta zaletuen kirioak dantzan izan ziren luzapenean eta, batez ere, penaltietan. Unai Marreroren geldialdiek ilusioa sortu zuten eta Pablo Marinek azken jaurtiketa sartzearekin batera eztanda egin zuen berriro algarak eta festak. Besarkadak, negarrak, kantuak... luzatu ziren Realak kopa jaso zuenera arte.



Futbolinak arrakasta handia izan zuen haur eta gazteen artean. TXINTXARRI



Goiz eta arratsalde, ilara luzea izan zen txu-txu trenean igotzeko. TXINTXARRI



Giro ederra jarri zuen Oaintxe in deu! taldeak egun osoan zehar. TXINTXARRI



Eitbko kideak arratsalde osoan zehar izan ziren herriko giroaren jarraipena egiten.



Haur, gaztetxo eta gurasoek puzgarrietako eremuaz gozatu zuten. TXINTXARRI



Txu-txu trenak herriko kaleak alaitu eta kolore txuri-urdinez bete zituen. TXINTXARRI



Dantzan izan ziren herritarrak Oaintxe in deu! txarangakoen doinuekin. TXINTXARRI



Kantuan eta lepokoak astinduz, ospatu zen Kopako garaipena karpan. TXINTXARRI



Realeko jokalariek koparekin; atzean, Cartujara bidaiatu iren jarraitzaileak. REAL SOCIEDAD

Reala eta Jon Martin herritarra, Errege Kopako finaletik ospakizunetara

Lander Astiazaran lasarteoriatarak ere Donostiako ospakizunaz gozatu du

Txintxarri

Unai Marrero, Pablo Marin, Rino Matarazzo... Egun hauetan zaletu eta komunikabide guztien ahota dabilta Realeko jokalaria eta entrenatzaileen izenak eta horietako bat dugu Jon Martin herritarra ere. Errege Kopako finalean lan ederra egin zuen zentralak.

Atletico Madril eta Real Sociadaren arteko Errege Kopara joan baino lehen agur berezia izan zuen kuadrillakoen partetik, Sanseko Lander Astiazaran jokalaria barne eta ez zuten hutsik egin Sevillan ere.

Finaleko jokalaririk gazteena izan zen (atzo 20 urte bete zituen), baina sendotasunez eta seriotasunez aritu zen jokoan. Herritarra horma bat izan zen eta Griezmann, Alvarez, Sorloth eta Le Normandek herritarraren presioa sufritu zuten; aireko baloietan ez zuen huts egin.

Ederki ospatu zuen Marinen azken penaltia eta Kopa eskuratu izana. Jokalaria eta taldeko ordezkariak zelaian zaletuei babesa eskertu zieten kopa batetik bestera eramanez. Lasarteoriatarak, gainera, futbolearen lehen pausoak ematen ikusi zuen Ostadar SKT ere izan zuen gogoan zelaian eta herriko taldeko bandera jantzi zuen.

Ospakizunak Donostian

Zelaian zein hilaren 19an itzulerako bidaiaren errealzaleen bero-



Ezkerrean, Martin, koparekin. Eskuinean, ospakizuneari Astiazaranekin. REAL SOCIEDAD

tasuna sentitu ahal izan zuten guztiek, baina hilaren 20an, Donostian bizi izan zen ospakizun handia.

Horretan Martinez gain, Astiazaran herritarra ere izan zen jokalarien autobusean. Realak kopa eskuratzeko bidean parte hatu duten jokalaria guztiak gonbidatu zituen jai handira. Astiazaranek 2025eko abenduaren 16an Realarekin debuta egin zuen Kopako final zortzirenetan Eldan (Alacant, Valentzia) Jon Ansotegiren eskuetik.

Donostiako kaleak jendez lepo zeuden; 100.000 bat pertsona inguru batu ziren erakunde ofizialen datuen arabera. Autobuseko aurrealdean kopa ikusgai jarri eta jokalariek zaletuak agurtzen eta kantuan egin zuten Anoeta eta udaletxe arteko ibilbidea.

Erakundeetako ordezkariekin bildu eta udaletxeko balkoitik jendeari hitz batzuk esan edo kantuan ere aritu ziren jokalaria eta Matarazzo entrenatzailea.

Festak udaletxe aurrera jaitsi zirenean jarraitu zuen eta, esate baterako, Aritz Elustondok bana-ka jokalaria aurkeztu zituen. Honako hitz hauek esan zituen zenean: "19 urte. Eta ze finala!". Eta denbora agortzear zela, Astiazaran barne hartzen duen harrobiko jokalariren kasuan zera aipatu zuen: "Hau guztiaren parte dira, Realaren oraina eta etorkizuna".

Jai giroa ezin izan zen luzatu, Realak Getaferen aurka neurtu behar zituen indarrak, hilaren 23an. Partida hori amaitzean, zaletuei eskaini zieten kopa.

ZALDI LASTERKETAK

Zaldi lasterketak eta Errege Kopa protagonista, bigarren jardunaldian

Txintxarri

Udaberriko denboraldiko bigarren jardunaldi eguzkitsua bizi izan zen hilaren 22an, Hipodromoan.

Haya Taal/Janaçek buru jarri eta nagusiki helmugara bakarri iritsi ziren, Arregi elektrizitatea sarian. Baina gainerako saioetan azken zuzengunean erabaki ziren lasterketak eta lehia estuez gozatu zuten zaletuek.

Ezuste korik ere izan zen pistan zein sari banaketan. Hala nola, lehen sarian Real Sociedad taldeko Alvaro Odriozola jokalariren Bernardo zalditegiko *Darkava*-k eskuratu zuen saria eta horrez gain, Kopako garai-



Bosgarren lasterketa. DABID ARGINDAR

penarengatik lore sorta bat ere eraman zuen. Eta laugarren lasterketan atzetik etorri zen *Pinsapo*/Sokorova bikoak eraman zuen saria.

HILAREN 22KO IRABAZLEAK

• Arkupe taberna saria

Darkava/ R.Sousa

• Namie Sushi saria

Armero/V. Janaçek

• Arregi Elektrizitatea saria

Haya Taal/V. Janaçek

• Ormazabal Loradenda saria

Pinsapo/D. Sikorova

• Lasarte-Oria Orain Isaac

Farré saria

Smoky Mountain/R. Sousa

BOLEIBOLA

Euskal Ligako 2. mailako taldeak Ligako hirugarren postua izango du jokoan

Ostadar SKTko taldeak ezin izan du HRV Embalajes Novalgos gainditu finalerdian

Txintxarri

Ez da posible izan, Euskal Ligako 2. taldeak ez du bere ligako finala jokatu eta ez da mailaz igoko. HRV Embalajes Novalgos hartu zuen talde urdin-beltzak, hilaren 19an, Maialen Chourraut kiroldegian. Ederki borrokatu ziren etxeokak, baina talde errioxarrak lortu zuen sailkapena; 3-0 irabazi zuen.

Lehen zatia parekatua izan zen. Bi taldeak ederki aritu ziren erasoan eta defentsan, baina kanpo-koek eraman zuten puntua, 23-25.

Bigarren jokoan, urdin-beltzek Haroko taldeari ongi eutsi zioten arren, aurkariak aldea ireki eta 17-25 gailendu zen.

2-0koak hauspotuta HRV Embalajes Novalgosek indartsu ekin zion hurrengo zatiari; etxe-koek, ordea, ezin izan zioten ongi aurre egin eta 9-25 galdu zuten.



Ostadar Boleiboleko kidea errematea egiteko prestatzen. TXINTXARRI

Ondorioz, Ostadar SKTko bigarren taldea hirugarren postuarengatik borrokatuko da, hilaren 26an, CD Universidad de Navarraren aurka.

Kadeteak, bikain

Gipuzkoako txapelketari dagokionez, Kadete Errendimendu

eta Partaidetza taldeek kanpoan zizuten norgehiagokak ederki gainditu zituzten; 1-3 (25-22,18-25, 19-25 eta 20-25) eta 0-3 (22-25,19-25 eta 15-25) irabazi zuten, hurrenez hurren.

Jubenilek, aldiz, Arizmediren aurka galdu zuten, 3-1 (25-18, 22-25, 25-22 eta 25-22).

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 25

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

• Ostadar SKT - Irauli Bosteko KK

12.00. Michelin kirol gunean.

ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA

• Billabona FKE - Texas Lasart. CF

16.00. Arratzain, Villabonan.

JUBENILEN GORENGO MAILA

• Texas Lasart. CF - Soraluze CF

17.30. Michelin kirol gunean.

• Añorga KKE - Ostadar SKT

19.30. Rezola, Donostian.

JUBENILEN I. MAILA, KOPA

• Sto. Tomas Lizeoa C - Ostadar SKT

19.15. Berio, Donostian.

IGANDEA 26

GORENGO MAILA

• Sanpedrotarra FE - Ostadar SKT

17.00. Trintxer, Donostian.

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

• Lazakao KE - Ostadar SKT

19.00. Arizti Handi, Lazkaon.

OHOREZKO J. MAILA, IGOERA

• Ostadar SKT - Intxurre KKE

10.30. Atsobakar kirol gunean.

JUBENILEN I. MAILA, UD. KOPA

• Kotkas CD C - Texas Lasart. CF

14.30. Marigoxotegi, Donostian.

OHOREZKO K. MAILA, JAITSIERA

• Zumaiako FT - Ostadar SKT

15.45. Aita Mari, Zumaiako.

ARETO-FUTBOLA

OSTIRALA 24

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

• Eguzki Arkupe Rehab. - Martutene KE

20.50. Maialen Chourraut kirol.

LARUNBATA 25

GAZTEEN MAILA

• Eguzki Lekuona T. - Mondrate CD

13.15. Maialen Chourraut kirol.

EUSKAL KOPA, KADETE MAILA

• Eguzki Escalerilla T. - Artaromo

11.30. Maialen Chourraut kirol.

IGANDEA 26

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

• Eguzki ISU Leihoak - Goierri KE

11.20. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA

• Eguzki Escalerilla T. - Irun Futsal

11.30. Michelin kirol gunean.

SASKIBALOA

LARUNBATA 25

SENIOR II. MAILA, A-3

• Ast. Mundarro - Ostadar SKT

12.00. Astigarragako kirol.

SENIOR III. MAILA, A-3

• Ostadar SKT - Eibar Saskibaloia

16.00. Maialen Chourraut kirol.

J. ERREND., A-1, FASE FINALA

• Zast Kuraya - Ostadar SKT

16.00. Aritzatalde kirol., Zarautzen.

EUSKAL LIGA, K. MAILA, A-2

• Tabirako - Ostadar SKT

10.00. Durango, Bizkaian.

K. PARTAIDETZA, A-5

• Ostadar Urdina - Bera Bera Ulia

09.30. Maialen Chourraut kirol.

• A. Luberri Txuri - Ostadar Beltza

16.00. Benta Berri kirol., Donostian.

IGANDEA 26

K. PARTAIDETZA, A-1

• Aldapeta Maria B. - Ostadar SKT

10.45. Aldapeta M. ik., Donostian.

BOLEIBOLA

LARUNBATA 25

JUBENIL MAILA, 7-12 P.

• Ostadar SKT - Usurbil Boleib.

18.00. Maialen Chourraut kirol.

K. ERRENDIMENDUA, 1-6 P.

• Ostadar SKT - Goierri A

13.15. Michelin kirol gunean.

K. PARTAIDETZA

• Ostadar SKT - Goierri B

09.30. Maialen Chourraut kirol.

IGANDEA 26

EUSKAL LIGA, II. MAILA, 3. P.

• CD Univ. de Navarra - Ostadar SKT

11.30. Iruñea, Nafarroan.

PILOTA

OSTIRALA 24

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K, EMAKU.

• Zazpi Iturri - Intza KE (Iparragirre)

20.00. 1. partida. Amezketan.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 1. MAILA

• Abantzu - Intza KE (Jauregi)

18.00. 5. partida. Zestoan.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 2. MAILA

• Intza KE (Atorrasagasti) - Ilunpe

18.00. 3. partida. Loidibarren pil.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA

• Intza KE (Maiz) - Gazteleku

18.00. 1. partida. Loidibarren pil.

LARUNBATA 25

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 1 MAILA

• Intxurre - Intza KE (Artetxe)

10.15. 2. partida. Alegin.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 2. MAILA

• Intza KE (Diaz de Gereñu) - Tolosa

11.00. 1. partida. Michelin pil.

• Bergara - Intza (Olazabal)

10.30. 4. partida. Bergaran.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 2. MAILA

• Intza KE (Elola) - Legazpi

11.00. 2. partida. Michelin pil.

IGERIKETA

LARUNBATA 25

ALEBIN LIGA

• Buruntzaldea IKTKo alebinek 7.

jardunaldiari egingo diote aurre.

17.30. Hernaniko kirol.

BENJAMINEN JAIALDIA

• Buruntzaldea IKTKo benjamin

mailako txikiek 5. jaialdian

parte hartuko dute.

15.30. Hernaniko kirol.

ERRUGBIA

LARUNBATA 25

18 URTEZ AZPIKOA, 1. MAILA

• Zarautz Beltzak Eibar - Hiru

Herri Ordizia

13.30. Atsobakar kirol gunean.

16 URTEZ AZPIKOA, 2. MAILA

• Zarautz Beltzak Eibar - Durango RT

10.30. Asti, Zarautzen.

IGANDEA 26

14 URTEZ AZPIKOA

• Ordizia - Zarautz Beltzak RT

11.00. Altamira, Ordizian.

10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA

• Beltzak RTko eskolako kideek

topaketa izango dute.

10.30. Aiete, Donostian.

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

LARUNBATA 25

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

• LOKEko amateur mailako

taldeek Gipuzkoako txapelketa

lehiatuko dute.

Egun osoa. Ibarren.

IGANDEA 26

BENJAMIN TOPAKETA

• LOKEko gimnasta gazteek

bigarren topaketan parte

hartuko dute.

10.30. Irunen.

JUDO

IGANDEA 26

ESKOLA KIROLA

• LOKEko alebin mailako judoek

Eskola Kiroleko Gipuzkoako

sailkapen saioa jokatu dute.

Goiza. Urnietan.

ATLETISMOA

IGANDEA 26

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

• Herriko atletak eskolarteko

mailako Gipuzkoako

txapelketako bigarren

jardunaldian jardungo dira.

10.00. Tolosan.

LASTERKETA

IGANDEA 26

HONDARRIBIA 10 K

• Herriko atletak Gipuzkoako

eta Euskadiko txapelketa den

Hondarribia 10K proban izango

dira korrika.

09.30. Hondarribian.



Mercero plazan bildu ziren BTT probako parte hartzaileak. TXINTXARRI



Ziztu bizian atera ziren. TXINTXARRI



Lokatzuak iritsi ziren helmugara. TXINTXARRI



Txirrindulariek ikusleen berotasuna sentitu zuten irteera puntuan eta helmugan. TXINTXARRI



Guztiei irekitako jarduera da BTT proba eta adin guztietako zaletuak izan ziren parte hartzen. TXINTXARRI



BTT zaletuek Lasarte-Oriako inguruetak mendi eta bideetaz gozatu dute

360 parte hartzaile izan dira BTT Lasarte-Oria probako irteera puntuan

Txintxarri

BTT Rural Kutxa Lasarte-Oria proba handia ospatu zuten hilaren 19an, goizez. Eguraldia lagun, Askatasuna parkearen ingurua kirolariz beterik izan zen bazkalordura arte.

360 zaleek parte hartu zuten aurtengo edizioan. Ohi bezala, bizikleta gainean edota bizikleta elektrikoan aritzeko aukera izan zuten proban bildu ziren BTT zaletuek.

Pixkanaka-pixkanaka eta probari ekiteko gogotsu gerturatu ziren denak Mercero gunean ipinitako irteerara.

Umoretsu eta herritarren animoen artean eman zioten hasiera erronkari. Buruntza eta Andatza mendietatik berrera egin zituzten ibilbideak. Norberak erabaki du bide motza, ertaina ala luzea egin.

Ibilbideak ibilbide, Hipodromo moko zubitik sartu ziren he-

rrira eta Askatasunaren parkeko helmuga zeharkaturik amaitu zuten BTT proba. Ordubete ingururen bueltan ailegatu ziren lehenengo kirolariak Okendo plazara.

Indarriberritzeko asmoz, Patxi Larrañaga harategiko txistorrarekin egindako mokaduak jan zituzten, besteak beste. Jakiekin batera, senideen txaloak ere jaso zituzten, zuzengunea pasa ostean.

ARETO FUTBOLA

Infantil mailako derbia, Eguzki Andatza tabernaren poltsara

Ligako bigarren fasean, Gipuzkoako txapelketa lehiatzen ari dira herriko taldeak. Lehen lauen artean sailkatu nahi dute

Txintxarri

Eguzki Areta Futboleko infantil mailako Andatza taberna eta Patricio taberna taldeek derbia bizi izan zuten hilaren 17an, Maialen Chourraut kiroldegian. Gipuzkoako txapelketa jokatzen ari dira herriko ordezkariek; lehen lauen artean geratzeko ari dira borrokan.

Partida borrokatua izan zen eta gol gutxi ikusi izan zituzten zaleentzako. Patricio tabernako gaztetxoek aurrea hartu zuten markagailuan. Andatza tabernako kideek ez zuten amore eman eta neurketa berdindu zuten, baita 2 eta 1ekoa jarri ere.

Neurketa amaitu arte, bi taldeak erasoan gogor saiatu ziren, baina ederki ezagutzen dute elkar jokalariek eta baloiak atera aurrera eramatea zail egin zitzaizkien.

Era horretara, Eguzki Andatza tabernak faseko lehen garaipena eskuratu du eta sailkapeneko hirugarren da; Patricio taberna, aldiz, sailkapen buru da.

Selekzio ezberdinekin

Eguzki Areta Futboleko harrobiko kideek, gainera, azken hilabeteetan, Euskadiko zein Gipuzkoako Selekzioen deia jaso dute entrenamendu saioak egiteko.



Infantilen derbiko irudia. TXINTXARRI

12 urtez azpiko Euskadiko selekzioa maiatzean Madrilera lehiatuko den Erkidegoen arteko Espainiako txapelketa prestatzen ari da eta apirilko 22ko entrenamendurako Peru Azkarate, Ekhi Dominguez eta Noel Benitez izan ziren deituak.

Gipuzkoako Selektzioari dago-kionez, kategorია ezberdinetako taldeak ere martxo amaieran hasi zituzten eremukako teknifikazio saioak.

Infantil mailan, hilaren 13an egin zuten saioan Unax Oliva, Unax Nogales, Josu Garcia, Axel Fuentes, Danel Gomez eta Unai Berasategi izan ziren lanean prestatzaile lanetan ari diren Mikel Escribano eta Gorka Redondo herritarren zuzendaritzapean.

ARRAUNA

Zumaiako trainerilla saria, Donostiara



DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK

Zumaiako jaiei agurra emateko, San Telmo trainerilla saria lehiatu zen, hilaren 19an. Traineren lehiarako prestakuntza modura Aiora Belartietakoa herritarra eta Donostia Arraun Lagunak-eko kideek parte hartu zuten txapelketan beste bost ontzirekin batera. Lehen txandan Hondarribia izan zuten aurkari eta 11.21,18 denborarekin bandera eskuratu zuten; 10 segundoko aldea atera zion bigarren sailkatu zen San Juani.



Podiumean izan ziren herriko atletetako batzuk. G. REDONDO/OSTADAR ATLETISMOA/ARTXIBOKO IRUDIA/ I. ROMERO

ATLETISMOA

Lasarte-Oriako atletek domina uzta, Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketetan

Guztira, herriko kirolariek kolore ezberdineko hamazazpi domina batu dituzte

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletek hitzorduz betetako asteburua izan zuten hilaren 18an eta 19an. Proba konbinatueta Euskadiko txapelketari zein maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketei egin zieten aurre kirolariek eta hainbat domina ekarri zituzten herrira.

Eider Redondok, esate baterako, zilarrezko postua eskuratu zuen 18 urtez azpiko proba konbinatueta Euskadiko txapelketan, Durangon (Bizkaia). Lehen aldia

zein herritarrek aire librean heptatloian parte hartzen zuela eta ederki gainditu zuen erronka.

Bi egunetan zazpi probetan lehiatu zen: 100 m. hesi, altuera proba, pisu jaurtiketa, 200 m. lasterketa, luzera jauzi, xabalina jaurtiketa eta 800 m. lasterketa. Eta gehienetan lehen hiru postuetan amaitu zuen saioa; altueran, gainera, denboraldiko marka egin zuen (1,57 m.).

Hilaren 18an, aldiz, 16, 18, 20, 23 zein master mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen, Arrasaten.

Lasarte-Oriako ordezkariak zabala izan zen maila eta proba ezberdinetan. Ostadar SKTk guztira hamalau ordezkari aurkeztu zituen lehiara. 16 urtez azpikoan Real Sociadako Aiala Romero herritarra izan zen hainbat probatan borrokan eta Master mailako MF55 kategorian, Mari Carmen Olaso.

Ederki jardun ziren atletak eta guztira kolore ezberdinetako hamalau domina jantzi zituzten: zortzi urrezko, lau zilarrezko eta bi brontzeko. Ikus koadroa.

PROBA KONBINATUEN EUSKADIKO TXAPELKETA

- 18 urtez azpikoa
- Eider Redondo (Ostadar SKT): Heptatlon - 2º

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

- 16 urtez azpikoa
- Xuban Corman (Ostadar SKT):
- Pisu - 1º
- 300 m. hesiak - 2º
- Aiala Romero (Real Sociedad):
- 100 m. lasterketa - 1º
- 300 m. lasterketa - 1º
- Aitor Martin (Ostadar SKT): Pisu - 2º
- Amelie Flores (Ostadar SKT): Luzera jauzia - 3º
- 18 urtez azpikoa
- Iñigo Lertxundi (Ostadar SKT): 400 m. hesi - 3º
- 20 urtez azpikoa
- Oinatz Almagro (Ostadar SKT): Luzera jauzia - 2º
- Iraia Alkorta (Ostadar SKT): 200 m. lasterketa - 2º
- Master Maila - MF55
- Mari Carmen Olaso:
- 100 m. lasterketa - 1º
- 200 m. lasterketa - 1º
- 400 m. lasterketa - 1º
- 800 m. lasterketa - 1º
- 1.500 m. lasterketa - 1º
- Eskolarteko txapelketa - 1. jardunaldia
- Amelie Flores (Ostadar SKT): Infantil maila - 80 m. hesi - 1º
- Pablo Roman (Ostadar SKT): Alebin maila - Pilota jaurtiketa - 3º

Horrez gain, euren markak ere ondu zituzten Lasarte-Oriako kirolarietako batzuk. Hala nola, Ostadar SKTko Xuban Cormanek pisu jaurtiketan, 1,69 m. eta luzera jauzian, 4,80 m. edo Real Sociedad taldeko Aiala Romerok 300 m. lasterketan, 43,31.

Eskolartekoan ere, dominak

Eta 16 urtez azpiko atletetako batzuk, hilaren 19an, Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldiari ere egin zioten aurre Irunen.

Harrobia indartsu dagoela erakutsi zuten Lasarte-Oriako gaz-

tetxoek. Infantil eta alebin mailako txapelketan Ostadar SKTko 30 bat kide izan ziren lehian, baita Real Sociedad taldeko Aiala Romero ere. Emaizta esanguratsuenak koadroan ikusgai.

Kategoria honetako hurrengo saioak hilaren 26an eta maiatzaren 3an lehiatuko dituzte gaztetxoek. Eta 10ean eta 31ean, infantil eta alebin mailako taldeen eta ikastetxeen txapelketak izango dira jokoan, hurrenez hurren. Maiatzaren 17an, berriz, proba konbinatuaren txanda izango da eta Lasarte-Oriako Atso-bakar kirol gunean batuko dira kirolari guztiak.

30 bat korrikalari animatu dira Diabetesaren erronkan parte hartzera

16:00ak aldera, Ainara Elizetxea zinegotziak egindako irteteko pistola tiro bereziarekin bat Ana Isabel Pineda atletak eta hainbat lagunek lehen metroak egin zituzten Atso-bakar kirol gunean, hilaren 20an.

Hamar bat kirola animatu ziren lehenengo birak egitera, baina izan zen itzuliak ematen ari zirela bertan izena eman duenik ere. Guztira, arratsalde osoan zehar,

30 bat pertsonak egin zuten bat ekimenarekin eta 105 bira eman zizkioten pistari.

Gaueko 20:45ak arte, Gipuzkoako Diabetes Elkarteak (AGD) eta Diabetes Cure Research Association (DCRA) elkarteek babesten duten *Diabetesaren 7x7x7* desafioa aurrera eramanez Pinedak eta antolakuntzako kideek nabarmendu dutenez, harekin



Ana Isabel Pineda atleta (biserarekin) eta erronka hasi zuen taldetxoak. TXINTXARRI

batera beste hiru lagunek ere egin zuten bide osoa.

Lasarte-Oriaz gain korrikalaria Irun, Errenteria, Santurtzi eta Bilbon burutu ditu erronkako etapak eta Basauri eta Gasteizen izango da hurrengo egunetan. Guztira 295 kilometro egingo ditu zazpi egunetan. Hurrengo saioetan izena emateko edo jardueraren gaineko informazio gehiago eskuratzeko: diabetesdcra.com/reto-7x7x7-diabetes webgunea edo AGDren sare sozialak.

PILOTA

Intza KEko pilotariak, denetariko emaitzak txapelketa ezberdinetako lehen jardunaldian

Aurten ere Lasarte-Oria Gomazko paletan lehiatuko da Herriarteko txapelketan

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko federatuek bakarkako Lau eta Erdiko txapelketa ekin dute emaitza ezberdinekin. Ikus taula.

Aurten sei maila ezberdinetan ari dira lehiatzen Lasarte-Oriako hamar pilotari: Nagusien eta Kadete I. mailan zein kadete emakumezkoan ordezkarri bana dago; bina Nagusien eta Kadeteen II. kategorian eta hiru dira Kadeteen III. mailan. Nahiz eta kategoria ezberdinetan pilotari bat baino gehiago izan ez dira Intzako kideek ez dute derbirik jokatu, guztiak multzo ezberdinetan daude.

Lasarte-Oriako kirolariak euren onena eman zuten txapelketako lehen neurketan; gehienek etxean, gutxi batzuk kanpoan. Hamarretik seik lortu zuten garaipena eta era horretara, lehen puntuak eskuratu dituzte maiatzaren 24an amaitzen den faseari begira. Maila eta multzo bakoitzean lehen eta bigarren sailkatuek Gipuzkoako txapelketa jokatu dute.

Errendimendu mailako gazte txoek, aldiz, binakako Udaberri txapelketako lehen lehia izan zuten eta infantil mailako bikoak ederki hasi dira, garaipenarekin.

Lehiaketa honetara Infantil I. eta III. mailan eta Alebin II. kategorian aurkeztu ditu bikoak Intzak.



Intzako pilotari federatuek lau eta Erdiko txapelketa hasi dute. TXINTXARRI

Herriarteko txapelketa

Bestalde, Herriarteko txapelketa aurkeztu zen hilaren 21ean, Donostian. Aurreko edizioan, Lasarte-Oriak Gomazko paletako txapelketan parte hartu zuen eta aurten ere, modalitate berean izango da lehiatzen beste hamazazpi herritako ordezkariekin batera.

Lehiaketa joan eta etorriko kanporaketa sistemarekin jokatu da. Maiatzaren 3an lehiatuko da lehen jardunaldia eta finala ekainaren 28an. Lasarte-Oriak aurreko urtean final laurdenetara iristegatik lehen kanporaketa ekidin du eta maiatzaren 17an izango du lehen lehia; Tolosa eta Zumarragaren arteko gurutzaketatik aterako da herritarren aurkaria.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, NAGUSIEN 1. MAILA

- Intza KE (Artetxe) 22-16 Murumendi
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, NAGUSIEN 2. MAILA
- Intza (Olazabal) 19-22 Abantzu
- LAPKE 22-8 Intza KE (Diaz de Gereñu)

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, KADETE, EMAKUMEZKOA

- Intza KE (Iparragirre) 22-14 Aizkorpe
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, KADETE 1. MAILA
- Intza KE (Jauregi) 11-22 Tolosa

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, KADETE 2. MAILA

- Bergara 12-22 Intza KE (Atorrasagasti)
- Alde Zaharra 7-22 Intza KE (Elola)

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, KADETE 3. MAILA

- Intza KE (Lasa) 22-12 Alde Zaharra
- Intza KE (Lopez) 12-22 Tolosa

ARRASATE 1-22 Intza KE (Maiz) 2

ESKUZ, BINAKA, UDABERRI TXAPELKETA, INFANTIL 1. MAILA

- Ilunpe 5-18 Intza KE

ESKUZ, BINAKA, UDABERRI TXAPELKETA, INFANTIL 3. MAILA

- Aloña Mendi 1 13-18 Intza KE

ESKUZ, BINAKA, UDABERRI TXAPELKETA, ALEBIN 2. MAILA

- Aretxabaleta 1 16-0 Intza KE * * Ez aurkeztua

Iparragirre, Nafarroan ere lehiatzen

Emakume Master Cup zirkuituko Nafarroako Torneoak hasi zen martxo amaieran. Eliteko jokalariek bikotekako azken jardunaldia jokatu zituzten hilaren 18an eta 19an, Mendabian eta Vianan.

Bigarren saio horretan, lehia nagusia baino lehen gazteen mailako lagunarteko partida lehiatu zen eta Itxaso Iparragirre herritarrek parte hartu zuen Itsasne Lizarralde kide zuela. Janire Sotil eta Maria Crespo izan ziren aurkariak eta 18-12 gailendu ziren.



Iparragirre (eskuinetik lehen jokalaria) eta lehiakideak. EMAKUME MASTER CUP

ERRUGBIA

Beltzak RT-ko gazteek, berdinketa eta garaipena Atsobakar kirol gunean

Txintxarri

Errugbiko harrobiko partidek gozatu ahal izan zen hilaren 18an, goizean, Atsobakar kirol gunean. 18 eta 16 urtez azpiko Zarautz Beltzak Eibar RTko taldeek Getxo RT izan zuten aurrez aurre.

Zaharren eman zioten hasiera jardunaldiari eta galduta ziru dien neurketari itzulua eman zioten bigarren zatiko azken hoge minutuetan.

Bi taldeak ederki borrokatu ziren metroak irabazi eta entseguak lortzeko. Azkenean etxekoek ireki

zuten markagailua marra igaroaz; ezin izan zuten gauzatzea lortu. Ongi erantzun zuten bizkaitarrek eta bi entsegu eta gauzatzearekin 5-14 iritsi ziren atsedendaldira.

Bigarren zatian, Getxok maldan gora jarri zien partida Beltzei, 5-26. Baina etxekoek ez zuten amorarik eman eta berdinketa eskuratu arte borrokatu zuten. Azken minutuetan bi taldeek garaipenaren entsegu eskuratzeko lehia bizia izan zuten, baina puntu banaketarekin konformatu behar izan ziren.



Zarautz Beltzak Eibar eta Getxoko 16 urtez azpiko gazteak, lehiatzen. TXINTXARRI

OHOREZKO B MAILA

- Gipuzkoa Sortzen 5-18 CR Alcala
- EUSKAL LIGA I. MAILA
- Universitario Bilbao R. 48-28 Gipuzkoa Sortzen
- 18 URTEZ AZPIKOA, 1. MAILA
- Zarautz Beltzak Eibar 26-26 Getxo RT
- 16 URTEZ AZPIKOA, 2. MAILA
- Zarautz Beltzak Eibar 38-5 Getxo RT

Ondoren, gazte txanda izan zen. Beltzak nagusi izan ziren markagailuan eta azken minutura arte, bizkaitarrek ezin izan zuten entsegurik egin. Erik Perez herritarrek lau gauzatze egin zituzten.

Zorriker ez


Gipuzkoa Sortzen proiektuko taldeek, aldiz, ez zuten euren eguna izan. Ohorezko B mailako taldeak borrokatutako partidaren 5-18 galdu zuten CR Alcalaen aurka.

Euskal Ligako mailako ordezkariek, aldiz, Bilbon (Bizkaia) izan zuten norgehiagoka. Universitario Bilbao taldea hasieratik nagusi izan zen zelaietan eta 19-7 gailendu zen. Beltzak RTko kide Joanes Arroyok entsegu egin zuen.

ZORION AGURRAK

**Kontxi eta Jose Ramon**

Zorionak zuen 45. urteurrenean! Eredu zarete maitasunean eta eraiki duzuen familia ederrean. Jarrai dezala zuen bideak belaunaldiz belaunaldi gure bihotzak argitzen. Askok maite zaituztegu!

**Begoña**

Zorionak Begobxu! Erreginarekin kopa altxako dugu! Ondo-ondo pasa asteburua eta joan prestatzen Bizkaiko ura! Muxu handi bat familiaren partetik

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta txintxarri.eus/zorionagurra helbidean sartu.

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 24	DE MIGUEL
LARUNBATA, 25	GIL
IGANDEA, 26	GIL
ASTELEHENA, 27	KNIESE
ASTEARTEA, 28	KNIESE
ASTEAZKENA, 29	GIL
OSTEGUNA, 30	KNIESE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara

CASTILLA-LARBURU farmazia
 Urbietakalea 7, / 94-55 29 41

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

IRAGARKI SAILKATUAK

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48

publizitatea@ttakun.eus

www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

SUDOKUA

	4	7			6			
6	9	5				8	4	7
	2							
3							8	
			8	7	3	2		6
	8		6	2		5		
4		8	5				3	
2							6	
				8		4	7	5

Sudoku-online.org



Hurrengo TXINTXARRI
 paperean
 maiatzaren 8an
 argitaratuko dugu

Bitartean, jarraitu albisteak:
www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 Lasarte-Oria
 G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre Etxeberria,
 Iñigo Gonzalez Sarobe,
 Maddi Noriega Zaldua
 eta Lierni Apaolaza
 Urdanpilleta.

Publizitatea
 Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Lierni
 Rekondo, Gorka Alvarez,
 Aizpea Amas, Maitane
 Rebe, Jexux Artetxe eta
 Oihane Puertas.

Banatzzaileak

Nora Navarro, Aimar
 Hernandez, Gari Iraola,
 Axier Iraola, Eneko Sanchez
 eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak
 IZT Informatika.**Publizitatea**

Tel.: 943-37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea, 4 (behea)
 Tel.: 943-37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zerua Multimedia, S.A.
 Lege Gordailua:
 SS-513/93
 ISSN: 1134-0053
 Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Okendo Zinema Taldeko kideek *Aro berria* filmaren emanaldia egingo dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 20:00etan.
- **Mobilizazioa** Lasarte-Oriako Sarek Azken Ostirala aurrera eramango du, iheslari eta deportatuen alde. Etxerat elkartearekin adostutako komunikatua irakurriko dute amaieran. Elizatze plaza, 20:00etan.

LARUNBATA 25

- **Literatura** Escape Room Literarioa ekimena antolatuta dute 7 urtetik gorako umeentzat. Lau eta sei lagun arteko ordu erdiko txandak egingo dituztela jakinarazi dute antolatzaileek. Udal Liburutegia, 10:00etan.
- **Literatura** Liburu Baby Kluba ekimeneko saioa egingo dute 0 eta 3 urte arteko haurren artean irakurzaletasuna eta arte diziplinak sustatzeko.

Txikiek euren familiekin parte hartzeko pentsatutako jarduera da. Udal Liburutegia, 11:00etan.

- **Ospakizuna** Emakume Elkartekideen II. Topaketa aurrera eramango dute, egitarau honekin:
11:00etan, Palomo Linares elkartearen txupinazioa eta ongietoria.
11:15etik aurrera, pintxo-potea eta kalejira Oaintxe in deul txarangako kideekin batera. Topaketaren antolatzaileek jakinarazi dute hiru elkartetan jango dituztela jaki goxoak: Palomo Linares, Arrieskalleta eta Xirimiri.
14:00etan, bakarrikzeta kutsuko gogoeta egingo dute Semblante Andaluz elkartearen egoitzan, Beatriz Egizabalekin batera.
14:30ean, Semblante Andaluz elkartearen bazkalduko dute. Menua hau izango da: salmorejo andaluziarra, flamenkinak, andaluziar erara gisatutako haragia eta banilla izozkidun torrada. Edateko ardoa, sagardoa edota ura izango dituzte aukeran, baita bazkalosteko kafea edota infusioa ere.

17:00etan, Semblante Andaluz elkartearen egoitzan, bingo musikatuari ekingo diote. Arratsaldean zehar sorpresak izango dituztela iragarri dute.

- **Produktu bilketa** Blokeo inperialistaren aurrean", Kubari elkartasuna adierazteko ekimena aurrera eramango duela iragarri du Buruntzaldeko Kontseilu Sozialistak. Osasun, higijene, garbitasun, kirol edota eskolarako materiala, elikadura osagarriak edota elikagai ez galkorrek produktuak jasoko dituzte. Okendo plaza, 11:00etatik 14:00etara.
- **Topaketa** Gazte Eguna antolatuta du LOGA Lasarte-Oriako Gazte Asanbladak. Egun osoko egitaraua prestatu dute:
11:00etan, *Michelin, 100 egun greban* hitzaldia. Michelingo frontoi irekitik hasita, herrian zehar egingo dute. Euria egingo balu, berriz, Antonio Mercero gunera lekualdutako dute hitzordua.
12:30ean, pala partidak, Loidibarren pilotalekuan.
15:00etan, bertso bazkaria, Xirimiri elkartearen. Ondoren, bingo musikatu.
17:30ean, Gazte argazkia, Xirimiri atzealdeko plazan.
18:00etan, Olinpiada saltseroak, Xirimiri atzealdeko plazan.



TXINTXARRI

19:30ean, Karropotea, herriko tabernetan zehar.
22:00etan, PMJotaXoXo, Ilargin.

- **Antzerkia** Ados Teatroa konpainiak *52 Hertz* antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA

- **Dantza** Jendaurreko hilabeteroko saioa egingo dute Plaza Dantza egitasmoan parte hartzen ari diren herritarrek. Okendo plaza, 12:00etan.
- **Zinema** Haurrei zuzendutako emanaldian *Taffiti eta lagunak* filma proiektatuko dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduei zuzendutako emanaldian *Sorda* filma proiektatuko dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEARTEA 28

LASARTE-ORIA

- **Errigora** Errigoraren *Eskutik Eskura* kanpainarekin bat. egin duten lasarteoriarrek produktuak jasotzeko aukera izango dute. Olioia ez den bestelako produktatuak jaso beharko dituzte egun horretan, Ttakunenea, 17:00etatik 20:00etara.

ASTEAZKENA 29

LASARTE-ORIA

- **Literatura** Unai Belaustegi, Xabier Irujo eta Iñaki Lopez de Luzuriaga historialariak elkartu dira eta, euskaratik abiatuz, *Iraganaren lekuko. Euskal Herriaren historia* liburua idatzi dute, Euskal Herriaren bilakaera historikoaren sintesia, "era dibulgatiboan eta eguneratuta". Antonio Mercero gunea, 19:00etan.
- **Errigora** Errigoraren *Eskutik Eskura* kanpainarekin bat. egin duten lasarteoriarrek produktuak jasotzeko aukera izango dute. Olioia ez den bestelako produktatuak jaso beharko dituzte egun horretan, Ttakunenea, 17:00etatik 20:00etara.
- **Dantza** Dantzaren Nazioarteko Eguna dela baliatuta, XIII. Dantza Topaketa aurrera eramango dute. Saharako taldeak, Erketzek, Semblante Andaluzek, Amaia Gonzalezek eta Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak parte hartuko dute. Okendo plaza, 19:00etan.

MAIATZAK 5

LASARTE-ORIA

- **Errigora** Errigoraren *Eskutik Eskura* kanpainarekin bat. egin duten lasarteoriarrek produktuak jasotzeko aukera izango dute. Olioia ez den bestelako produktatuak jaso beharko dituzte egun horretan, Ttakunenea, 17:00etatik 20:00etara.

MAIATZAK 6

LASARTE-ORIA

- **Errigora** Errigoraren *Eskutik Eskura* kanpainarekin bat.

LASARTE-ORIA Musika

Zero Sette orkestrak Lasarte-Oriako 23. Akordeoi Jaialdia aurrera eramango du udalaren laguntzarekin. Jakinarazi du Marcel Loeffler eta Rodrigo Mosquera musikariak gonbidatu dituela, baita Leioako kontserbatorioko ikasleak ere. Sarrerek, 6,10 eurotan. Kultur etxea, 18:30ean.

egin duten lasarteoriarrek produktuak jasotzeko aukera izango dute. Olioia jaso beharko dituzte egun horretan, Ttakunenea, 17:00etatik 20:00etara

MAIATZAK 7

LASARTE-ORIA

- **Jaia** Herritarren arteko sarea, komunitatea hedatzen eta zaintzen jarraitzeko asmoarekin eta kulturartekotasuna ardatz hartuta, Milakultura jaia aurrera eramango dute. *Kulturartekotasunetik haratago: eguneroko arrazakeria, estreetipoak eta begirada antirrazista* hitzaldia egingo dute; Ndank Ndank elkarteo kideak izango dira hizlariak. Oriarte BHI, 18:30ean.

MAIATZAK 8

LASARTE-ORIA

- **Jaia** Herritarren arteko sarea, komunitatea hedatzen eta zaintzen jarraitzeko asmoarekin, Milakultura jaia aurrera eramango dute. Hauek dira iragarri dituzten jarduerak:
10:00etan, Mila kultura ikastetxeekin. Okendo plaza.
• **17:30ean**, *Zer dakizu Afrikari buruz?* sentsibilizazio saioan parte hartuko dute Gazteklubeko LH3ko gaztetxoek. Antonio Mercero gunean.
• **18:30ean**, Gazteklubeko LH4-5-6. mailako kideek koreografiak dantzatzeko dituzte.
• **19:00etan**, munduko musikak. Okendo plaza.

GAZTE EGUNA *APIRILAK 25*

EGITARAUA

- 11:00** Hitzaldia: "Michelin, 100 egun greban" (Mitzelingo frontoi irekitik hasita herrian zehar)
*Eurria egin ezker Mertzero Aretoran.
- 12:30** Pala partidak (Loidibarren frontoian)
- 15:00** Bertso bazkaria (Xirimiri elkartearen)
*Tiketak eskuragarri ilargi tabernan/galdetegia betez.
- Ondoren bingo musikatu
- 17:30** Gazte argazkia (Xirimiri atzeko plazan)
- 18:00** Olinpiada saltseroak (Xirimiri atzeko plazan)
- 19:30** Karropotea (Herriko tabernetan zehar)
- 22:00** MJotaXoXo (Ilargin)

LOGA

TXINTXARRI

Osasun gida 2026

Fisioterapia



PAGOYA
Patricia Gonzalez Belmonte

- Osteopatia
- Masajea
- Drainatze linfatikoa

Tel.: 619 11 10 89 📞
patriciagonzalez.pagoa@gmail.com
Pablo Mutiozabal 2, 1º 3. gela
LASARTE-ORIA



ene
Oihane Labayen Zudaire
684808484

FISIOTERAPEUTA
Arreta integrala.
Zoru pelbikoan eta
ariketa terapeutikoan
espezializatua.



Hartu hemen
zure hitzordua

Hortz klinikak



Lehenengo kontsulta eta diagnostikoa doan

Zure aurrekontuari egokitutako tratamenduak

Doako urgentziatzko zerbitzua gure pazienteentzat

Errehabilitazioetan espezialistak

Odontologia etikoa

Ola kalea, 10. Lasarte-Oria
943 366 377
www.dentalaldaz.com

Fisioterapia



PIZARRRO
HORTZ KLINIKA DENTAL

ODONTOLOGIA OROKORRA | ODONTOLOGIA
ESTETIKOA | KIRURGIA | ENDODONTZIA | PADI |
ORTODONTZIA | PERIODONTZIA | ODONTOLOGIA
PEDRIATIKOA | ZURIKETA | PROTESIA



IÑIGO DE LOIOLA, 9 BEHEA
LASARTE-ORIA TEL: 747 40 33 21



ARALAR
FISIOTERAPIA

- FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA
- MUSKULU-ESKELETOAREN EKOGRAFIA
- INDIBA ACTIV
- PILATES TALDE TXIKIETAN
- ESKU TERAPIA

Aralar Plaza 5, behea, LASARTE-ORIA
(+34) 747 48 50 28
www.aralarfisioterapia.com



Ibaiondo

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerre
20160 Lasarte-Oria

Osasun zentroa



ZAINQI

| FISIOTERAPIA | ERIZAINNTZA | DIETETIKA |
| AKUPUNTURA | TERAPIA NATURALAK |

David Egizabal | Slawomir Sulik

www.zainqi.eus

611 09 20 20 Juan XXIII plaza

Osasun gida 2026

*Zure osasuna esku onenetan,
Lasarte-Orian!*

Hurrengo gida MAIATZAREN 29an.
Parte hartu nahi baduzu, jar zaitez gurekin
harremanetan: 943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66